




Ogasun Atalak legezko baldintzak betetzen direla egiaztatu eta aurrekontuen **ZIRRIBORROA** egingo du




Alkatetzak egoki deritzen aldaketak egin ostean aurrekontuen **PROIEKTUA** eratuko da txostenekin, memoriekin eta gainontzeko informazioarekin batera




Ogasun eta Ekonomia-Sustapeneko Informazio Batzordean, talde politikoek zuzenketak aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatuko dituzte




Udalbatzak, gehiengo soilarekin, **HASIERAKO** edo **BEHIN-BEHINEKO** aurrekontua onetsi eta berau jendaurrean jarriko da (iragarkia argitaratuko da BAOn, eta edukia webgunean jarriko da)




Herritarrek 15 egun balioduneko epea izango dute alegazioak edota erreklamazioak aurkezteko



Udalbatzak aurkeztutako alegazioei buruz erabakiko du. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontuak behin betiko **ONESPENA** duela joko da



Behin betiko onespena eman dadin beharrezkoa izango da aurrekontuen laburpenak aldizkari ofizialean argitaratzea



Aurrekontua **indarrean sartuko da** dagokion ekitaldiaren urtarrilaren 1ean edota, bestela, berau aldizkari ofizialean argitaratzen den dataren biharamunean